

"BETIKO" TA "BETIRAKO"RI BURUZ ZEOZER

Orain illabete batzuz "ZER" aldizkarian "Memaia" izenordea darabilen idazle jatorrak, golan aipaturiko esaera bi orreiri buruz, zeozer idatzi eban, eta gaia zudugarria edo interesgarria deritxadan ezker, nire aldetik zeozer esan gura izango neuke. Gitxi gora-beera auxe idazten eban "Memaia" k:

Batzar baten, iñon eta iñoiz entzun ez eban berbea entzun eutsala izlari bateri, eta auxe alegia: "betirako" \$ "para siempre". Batzarraren ostean, zelan esango leuke "para siempre" dalako izlariari itaundu eutsan, eta onek: "betiko" berbea erabilliko leukela erantzun eutsan.

—Zelan esan dozu ba, birritan "betirako"...? - Memalak'k.

—Liburuak ipinten yok - izlariak.

Memaia k diño gero, "betirako" berbea, Azkue 'k iñoiz ez entzuniko "solecismo" tzat daukala, Mendiburu'k eta Lizarraga'k erabilli arren.

Jarraian, Memaia 'k eskatzen dau Bizkai 'ko erriren baten norbaitek "betirako" itza entzun ba' leu "ZER" aldizkarian jakiñerazoteko.

Nire ustez erriak "betiko" itza baiño ez dau besterik erabilten. Baiña...

Argi dago niretzat, erriak "betiko" berbaz esangura ezbardin bi adierazoten dauzala, eta nire ustez ori ez da egokia. Idazle batek euskera jatorra erabilli bear dau, baita euskera zeatz eta ulerterraza be. Euskera jatorra ta ulerterraza ez danak, gogait-eragiten dau edozein irakurle, eta au dala-ta, aalegindu gaitzen idazleok baldintza bi orreik ondo beteten, eta gauza ezbaridiñak berba edo esaera ezbaridiñak eskatzen dabezan ezker, saiatu gaitzean gure izkuntzari doitasun ori emoten.

"Jaungoikoa betiko do" idazten edo esaten dogunean, gauza ezbardin bi adierazo dagikeguz:

Bata: Beti lez dala, aldakuntzarik ez dauala.

Bestea: Amaitzerik ez dauala, beti iraungo dauala.

Arazoa, beraz, bear dan lez zeazteko, lenengo esaera adierazo gura ba' dogu, au da, beti lez dala, aldakuntzarik ez dauala, nik "Jaungoikoa betikoa do" idatziko neuke. Baiña bigarren zentzua emon gura izango ba neuskio, au da, sekulan iraungo dauala orduan "Jaungoikoa betirakoa do" idatziko neuke.

Eta bardin,

"Zure lelo ori betikoa do" idatziko neuke, beti gauza bardiña diñozula adierazoteko.

Eta,

"Zure lelo ori betirakoa da" ipiñiko neuke, zeuk diñozun ori sekula ba beti entzungo dala, adierazo nal izatekotan.

Barrero be auxe esango neuke: irakurle gitxi dogu, zoritxarrez, eta ugaritu daitezen, irakurgai jatorrak eta ulerterrazak erabilli bear doguz idazleok. Elederreko euskerea osotu barik dago, eta au egunik-egun idazleek etxe baten antzera eraikiko dabe, doguzan erri euskerak erabilliz, baita aldakuntza txikiak sortuz be, esan-naiaren doitasunak olan eskatzen dauanean.